



2003/01/09ko prentsa-oharra

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko azaroa**


EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA %0,8 JAITSI ZEN 2002KO AZAROAN

Industri Produkzioaren Indize Orokorra %3,0 hazi da lan-egutegiaren balio konparatibo homogeneotan.

2002ko azaroan, %0,8 jaitsi zen Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea, aurreko urteko hil beraren aldean, EUSTATEk eskainitako datuen arabera. Jaitsiera hori, ordea, lanegunen balio homogeneotan neurtuta, Produkzioaren Indize Orokorrenen %3,0ko igoera da, joan den azaroak 2001ekoak baino lanegun bat gutxiago izan baitu.

Horiek horrela, 2002ko lehenengo hamaika hilabeteetako balantzean, Indize Orokorrenen tasa metatua %0,8 murriztu da, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta jaiegunen eragina zuzenduta, berriz, murrizte hori % 0,6koa da.

Euskal AE-ko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2002



(*)2002ko urri-azaroko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT.

2002ko azaroan, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *larruaren eta oinetakoen industria* (%16,2), *zurgintza* (%12,9), *ehungintza eta jantzigintza* (%6,3), *garraio-materiala* (%5,3), eta *kimika-industria* (%4,4) arloei, besteak beste.

Urte arteko tasarik negatiboenak honako hauek izan dituzte: *petrolioaren fintzea* (%-22,3), *material elektrikoa* (%-7,1), *elikagai-industria* (%-4,9), eta *bestelako enbaturak* (%-3,4) arloek, batik bat.

Bitarteko ondasunek %3,6ko tasa positiboa izan dute azaroan, ekipo-ondasunek %1,5eko tasa jaitsiera, eta kontsumo-ondasunak %4,4 jaitsi dira aurreko urteko hil beraren aldean.

2002ko lehenengo hamaika hilabeteetan, bitarteko ondasunak eta kontsumo-ondasunak %0,6 eta %0,5 igo dira, hurrenez hurren, eta ekipo-ondasunak, aldiz, %2,2 jaitsi.

Urteko lehenengo hamaika hilabeteetako balantzean, lanegunen zuzenketarik gabe, aldakuntzak desberdinak izan dira hiru herrialdeetan: Gipuzkoan eta Bizkaian %1,7 eta %0,4 jaitsi da, hurrenez hurren, eta Araban, aldiz, %0,1eko igoera txikia izan da.

Taula: 2002ko AZAROA. Industri Produkzioaren Indize Orokorren hazkunde-tasa (%).
Euskal AE

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2001eko urtaril-azaroko tasa metatua		2002ko urtaril-azaroko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	-0,8	3,0	0,4	0,1	-0,8	-0,6
Araba	-1,7	2,2	-0,2	-0,5	0,1	0,3
Bizkaia	3,0	6,6	0,0	-0,2	-0,4	-0,2
Gipuzkoa	-4,3	-0,4	1,1	0,8	-1,7	-1,5
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	3,6	7,0	1,1	0,9	0,6	0,7
Kontsumo-ondasunak	-4,4	-0,4	-1,0	-1,4	0,5	0,8
Ekipo-ondasuna	-1,5	3,3	-0,2	-0,6	-2,2	-2,0

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso Tel.: 945 017 514. Faxa: 945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--